

## IMANOL LASPIUR GOGOAN

Abenduaren 24an urtea Imanol joan zitzaiguna. Hori dela eta, lagun minaren oroitzapenak bizi datozkidan honetan, euskararen eta Euskal Herriaren alde egoera zailetan eta garai ilunetan izan zuen jokabidea, haren euskaltzaletasuna, euskararenganako atxikimendua, euskararen aldeko haren ahaleginak, lanak, ekarri nahi ditut orrialdeotara. Eredua dugu Imanol, eta lagunaren gorazarrea egiteaz batera eredu hori ezagutaraztea da nire asmoa, hemen, *Karmelen*, berak sasoi batean kolaboratu zuen aldizkari honetan.

Behargin familia batean jaio zen, Bergaran, 1929ko otsailaren 21ean. Aita bergararra eta ama eskoriatzarra. Ume zelarrik Eibarrera etorri ziren bizi izatera. Ume-umetatik, bada, Eibarren bizi izan zen eta eibartartzat zuen bere burua. Imanolen bizitzan, familiak eragin sakona izango du. Etxetik zetorkion euskaltzaletasuna. Gurasoengandik jaso zuen euskararenganako maitasuna eta euskaltzaletasun praktikoa, haren Ibarkurutzeko etxian ez zen-eta euskara beste hizkerarik. Berak ere eragin zuen familian, jakina, bere jardunbidearekin eta exenpluarekin; hala, arrebak ere urteetan zehar jardungo zuten gau-eskoletan, AEKn, euskara irakasle. “Club Deportivo”ko<sup>1</sup> Santi Arizmendiren esperanto eskolan ezaugutu

<sup>1</sup> Klub honetako giroa ezohikoa zan Eibarren 50. hamarkadako kultur basamortu hartan. Euskara eta esperanto eskolak ematen ziran norberarena unibertsalarekin bat egin nahian-edo, eta larunbat gauetan solasaldi oso interes-

zuen Arrate Ibargutxi bere emaztea, bai euskararen aldeko jardunean, bai eta burruka politikoan ere bidelagun izan duena, batasun estuan, beti elkarrekin, pozaldian eta sufrimenduan. Giro aparta izan du Imanolen etxean, familian. Seme-alabak ere aitaren ildokoak, beti aurkituko zuen Imanolek emazte eta seme-alabengan bere ahaleginentzako sostengua eta laguntza.

Garaian Eibarren ohikoa zen moduan, "Armeria Eskola"n egin zituen industri-maisu delako lanbide ikasketak. Industrielantegi batean egin zituen bere lehen lan urteak, berari zegoen langintzan. Gero, 1957. urtean, oso adiskide zuen Aita Txanton Goiriak argitaldari baten ordezkari bat eskaini zion eta salmenta munduan sartu zen, soldadu nengoelarik egin zidan gutun batean zioenez, "*beste gauza batzuetarako asti pixka bat lortu ahal izateko*"<sup>2</sup>. Astia behar zuen, ordurako, *beste gauza* horietan, Herriaren aldeko langintzan alegia, oso murgildurik zegoenez gero. Hasi, liburu salmentan hasi zen, gero material elektrikoa, makina-erraminta, eta azken urteetan material elektriko biltegi bateko gerente, 64 urterekin jubilatu zen arte. Bizimodua aurrera atera beharrak, baina, gero eta denbora gehiago eskatzen zion, eta makina bat ordu kendu behar izan zizkion loari bere euskararen aldeko jardunean emateko.

Gerra ostean, 1952-53 urteetan -agian lehenago- mugimendu sortu berri batek ekingo dio gogo biziz, Eibarren, euskararen aldeko lanean. Juan San Martin, Imanol Laspiur, Bittor Kapanaga otxandiarra, Jose Luis Ugarteburu, Jabier Zubiaurre, Jose Antonio Eizagirre, Paulino Larrañaga, Peli Aizpitarte eta Jose Inazio Iraegi izango dira talde horretan. Errepresio urteak

garriak izaten ziran, politikaz, kulturaz eta Euskal Herriko arazoez hitz egiteko. Solaskideak: Santi Arizmendi bera, Irisarri zaharra, Juan San Martin, Imanol, Bittor Kapanaga, Paulino Larrañaga, Serafin Basauri..., eta beste euskaltzale eta mendizale batzuk.

<sup>2</sup> Garapen itsuaren urteak ziren, eta orduan, hainbaten ametsa Eibarren, norberaren kontura "taillarra" ipini eta aberastea zen. Imanolek, oster, bizi ahal izateko adina eta *beste gauza batzuetarako* astia irabaztea zen nahi zuena. Ez zen, ez, normala Herriaren edo gizartearen alde doako lanetarako astia ateratzearen lanbidez aldatzea.

izanagatik eta kanpotik heldu zitzaigun jende oldeak euskaltasunean desoreka nabarmena eraginagatik, euskara bizi-bizi zegoen Eibarren: nesken artean eta neska-mutilen artean euskararik egiten ez bazen ere, bai ostera, lantegietan, tekniko eta tailerretako langileen artean euskaraz egiten baitzen nagusiki, eta kalean eta lagun artean ere bai, gizonezkoen artean behintzat. Gerra-osteko guraso belaunaldiak euskararen transmisioan izan duen porrota izan da gure arazoaren alderdirik txarre-na: ez errepresioak, ez inmigrazioak justifikatzen baitu belaunaldi horrek etsi-etsirik bereari eusten ez jakin izana. Garai gogorra zen euskararentzat: batetik, aipaturiko belaunaldi horren euskal kontzientziarik eza eta bestetik, bizitza publiko eta ofizial guztian debekatua, komunikabideetatik eta eskoletatik erauzia, euskara zeharo gutxietsia eta zanpatua zegoen. Ba horrek guztiorrek eragingo du euskaltzale talde horrengan: elkartu egingo dira, antolatu egingo dira eta euskararen aldeko lanari ekingo diote. Lehen helburua, Bittor Kapanagak<sup>3</sup> dioen moduan, *geure euskara aberastu eta hobetu, irakasteko gau-eskolak ireki eta ahal zen guztia egin, euskararen eta euskal iza-tearen alde*.

Mugimendu horren aitzindari eta euskarri izango dira Juan San Martin, Imanol Laspiur eta Bittor Kapanaga bera ere bai<sup>4</sup>. Bakoitzak bere izaera eta ahalmenen arabera asko ere asko eman izan du euskararen eta euskaltasunaren alde. Baina, orain, Imanol Laspiurren emanari eta eraginari lotuko natzaio.

Imanolen euskaltzale militantzian, euskara irakaskuntzak egundoko garrantzia du. Aipaturiko mugimendu horretan elkar-tu baino lehen ere ematen zituen euskara eskolak, berekasa, "Club Deportivo"an, Zabala Aranaren gramatikaren bidez. Gero Xabier Peñaren ikasbidearekin. Talde hori, Euskal Herriko bes-

<sup>3</sup> Bittor Kapanaga, *Euskara erro eta gara*, Bilbo 1978, 8.

<sup>4</sup> Bittor Kapanaga, *Euskara erro eta gara*, Bilbo 1978, 8 eta 10. Orrialdeotan, San Martinen eta Laspiurrengandiko sostengua eta laguntza aipatzen ditu Bittorrek. Izan ere, ezinbesteko erreferentzia izango dira, bata zein bestea, Eibarko gerra-osteko euskaltzale mugimenduan.

te hainbat talde eta jenderekin jarriko da harremanetan, irakas-kuntza esperientziak elkarrekin trukatzeko, Euskal Herriko arazoak aztertzeko edota literaturaz jarduteko. Urbian, Antzuolako Usarragan, Arraten, Egotxiagan<sup>5</sup> eta halako lekuetan bildu ohi ziren, erdi-isilian. Mugimendu euskaltzalea indartzeko hain premiazkoa zen harreman sarea moldatzen joango da eta Imanol hor egongo da danean. Maria Teresa Urrestarazu<sup>6</sup> bilera horietako partaide gasteiztarraren bidez jakiten dute Andoni Urrestarazuk (Umandik) -1953an Parisen erbesteratua- bazituela berak egindako gramatika apunte batzuk. Apunteokin hasi ziren taldean ikasten<sup>7</sup>, baina talde horren laguntza eraginkorraz, argitaratu egingo da Umandiren euskal gramatika "Gramatica Vasca" izenarekin, Luis Mitxelenaren berrikuspenarekin eta Urkixo mintegiaren babespean, 1955. urtean. Irakasbide hori erabiliko du bere irakaskuntza jardunean "Club Deportivo"ko kultur taldearen babespean zenbait urtetan. Taldearen ekintzetako bat izan genuen 1959ko azaroaren 6, 7 eta 8an, Eibarko Udaletxean eta Euskaltzaindiaren ardurapean antolatu zen *Euskaltzaleen Biltzarra, Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez* izan zena<sup>8</sup>, eta Imanolek hor jardungo zuen, San

<sup>5</sup> Juan San Martin, *Yon Etxaide, idazle bikain eta adiskide minaren oroitzapenez*, in JAKIN 110, 50.

<sup>6</sup> Andoni Urrestarazuren -UMANDIren- arreba.

<sup>7</sup> Imanol Laspiur, *Gerraondoko euskal irakaskuntzaren hastapenak Eibarren*. Hala dio: Bidebarrieta kaleko 28. pegoran bizi zen Jose Luis Gorrotxategiren 3. pisuan, erdi isilpean, egunero biltzen ziren UMANDIren gramatika aztertzen. Taldeburu D.Rafael Artola apaiza izan zuten lehen hilabeteetan, "Bordari" olerkariaren anaia hain zuzen.

<sup>8</sup> EUSKERA V, *Euskaltzaleen Biltzarra (Juan Antonio Mogel Eibarko semearen gorazarrez*, 1960. Aipatu dugun talde horretako bi partaideren lanak aurkeztu ziren: Juan San Martinen *Juan Antonio Mogel eta Urkitza, bere bizitza eta lanak* eta Jabier Zubiaurren *Mogel eta burdingintza*. Ikus: bai eta Juan San Martinen "Euskerako" separata ere, *MOGEL bere bizitza eta lanak*, Zarautz, 1959. Aipagarria da, Biltzar honen barneko ekitaldien artean antolatu zela Gipuzkoako bertsolarien lehen txapelketa eta bertsolariak bederatzi puntokoan kantatzera behartu izanaren kontra zegoelako ez zuen Basarrik parte hartu. (Ikus: *Egunkaria* 1999-12-18, 14).

Martinekin batera antolakuntza lanetan. Taldea bakantzen joango da, baina Imanolek eutsi egingo dio. “Arrate Kultur Elkartean” hasiko zen eskolak ematen, gutxi gora-behera 1965az gero, lau urteko kartzelaldiaren ondoren eta 1968tik aurrera, euskara batura makurtuaz zeharo. Hainbeste urtetako esperientzian oinarriturik bere *EUSKARA IKASBIDEA*<sup>9</sup> deritzon euskara hobekuntzarako metodoa osatuko du, makinaz idatzitako 546 orrialde-multzoa, eta ikasbide horrekin segituko hainbat eta hainbat talderekin, bere euskara irakaskuntza lan emanorrean. Irakasleak sortuko dira hortik gau-eskoletarako. Rikardo Arregiren (Imanolen hitzetan probidentzialaren<sup>10</sup>) alfabetatze prozesu horretan ere hartuko du parte. Deba ibar osoan, bi urtetan zehar, andereño eta irakasleei euskara ikastaro laburrak ematen jardungo du. *MORFO-SINTAXIA*<sup>11</sup> apunte multzoa prestatu eta ikastaro bat ere emango du euskara irakasleentzat. AEK modu profesionalago batean eratu ostean utziko ditu bere euskara irakatsaioak, hogcita bost urte inguru doako militante lanean jardun ondoren.

Imanolen bizitzaz dihardugun lerro hauetan nahitaezkoa da haren militantzia politikoa aipatzea: 50. hamarkada itogarri harrak eramango du Imanol erakunde abertzale klandestinetan burukatzerara. Imanolen aberria euskara zela esango nuke, bere abertzaletasunaren sustrai-sustraiaren zegoen sentimendua hori zen eta euskararen garapenerako burruka politikoan ere jardun beharra ikusi zuen. EGI erakundearen sartu zen EKIÑEN eskutik, eta azkenik ETAn, 1958an sortu zenetik. Makina bat hara eta hona egingo zituen, astegun iluntzeetan eta igande goizetan, Deba ibar guztian zehar militante gaiei ikastaroak ematen. Kultura edukin nabarmena zuten berbaldi eta solasaldiak izan ohi ziren: historia, eskubide historikoak, gure naziotasunaren osagarriak, politika gaiak; hoiek guztiak euskaraz ematen ziren, informazio iturri gehienak gazteleraz egonagatik. Gazte

<sup>9</sup> Argitaragabea. Eibarko Udaleko “Ego Ibarra”ren *Imanol Laspiur* fondoan.

<sup>10</sup> Imanol Laspiur, *Gerraondoko euskal irakaskuntzaren hastapenak Eibarren*.

<sup>11</sup> Argitaragabea. Eibarko Udaleko “Ego Ibarra”ren *Imanol Laspiur* fondoan.

belaunaldi harentzat, oinarrizkoa zen euskara formazio tresnatzat erabiltzea, elementu zentraltzat zuenez gero. Nazio mailako ardurak izan zituen eta hor jarraituko du 1961ean preso hartzen duten arte. Torturak jasan zituen, modu basatian, seinaleak agirian uzteko inongo ardura gabe, gorputza goitik behera ubeltzeraino. Lau urte egin zituen kartzelan. Kartzelaldi ostean ez zuen politikan parte-hartze zuzenik izan, ezta 1976-77 ondoren ere, nahiz eta beti lerrotu izan den injustiziaren kontra eta bere herriaren alde, aukera izan zuen guztian. 1968an desterratua izan zen Granadako Zafarraya herritxoan<sup>12</sup>. Konponbide demokratiko, baketsu, justu eta negoziatuaren aldeko zen.

Ikastola mugimenduan ere utzi zuen Imanolek bere arrastoa. Eibarko ikastolaren sortzaileetakoa<sup>13</sup>. Ikastolen Gipuzkoako Federazioko talde bateragileko partaide 1971an, Guraso Heziketa sailean. Jo eta su jardungo zuen sasoi horretan batetik bestera hitzaldiak ematen, gurasoen kontzientziak suspertze aldera<sup>14</sup>. Hizlari bikaina zen, irmoa eta zuhurra, premiazko bertuteak biak sasoi iskanbilatsu hartan, oreka batean eta batasun bidetik aurrera egingo bazen. Idatzi ere egin zuen Ikastola eta gurasoen arteko arazoaz JAKINen<sup>15</sup>. 1973az gero Eibarko ikastolako batzordekide eta 1977an Lehendakari.

Euskara kontuan, lehen aipatu dugun irakaskuntza arlotik aparte ere, langilea genuen oso. Arantzazuko bileraren aurretik, Gerediaga elkarteak, Ermuan, literatur-hizkuntzaren batasunaz antolatu zuen mintegian euskal-joskerari buruzko ponentzia interesgarri bat aurkeztu zuen euskal joskeraren

<sup>12</sup> Imanol Laspiur, *Juan San Martin adiskideari gutuna Zafarrayatik*, in HEGATSEZ, Zarautz, 1971, 208.

<sup>13</sup> Imanol Laspiur, *Eibarko ikastolaren historia txikia*, Eibarko Udala-Euskara Batzordea, 1995, 202.

<sup>14</sup> Imanol Laspiur, *Eibarrera jatorraren bidetik-Eranskiñak*, "...eta kitto", Eibar, 1999, 110,111

<sup>15</sup> Imanol Laspiur, *Ikastola eta gurasoak*, in JAKIN sorta 6, 1972, 55-90.

gainean<sup>16</sup>. Arantzatzuko bileraren ondoren, berehala onartuko du Euskaltzaindiak bilera hartan emandako gomendioa eta harrez geroko arauon konpliztaile zintzo izango dugu, garbi baitzuen gure Herriak premiazko zuela euskararen batasuna. Garai hartako “H”aren inguruko polemikan ere parte hartuko zuen Euskaltzaindiaren erabakiaren alde, bai aldizkari artikuluetan<sup>17</sup> bai eta hitzaldi eta mahai inguruetan<sup>18</sup>, irmotasunez baina zuhurtziaz eta oreka gordeaz, ikastola arazoan bezala arazo honetan ere. Euskara batuaren zale bazen ere, ahozkotatunaz kezkatua genuen Imanol. Eibarko euskara izugarri maite zuen eta makina bat lan egin izan du Eibarko euskararen berezitasunak argitzen, bai idatziz bai eta hitzaldietan. Euskaltzaindikiko urgazle izendatzen da 1975eko ekainaren 27an eta 1976ko martxoaren 27an irakurriko du “*Azentu diakritikoa Eibarko euskarari*” bere lan bikaina<sup>19</sup>. Eibarko Udalak 1985ean antolatu zituen “*Euskara-Euskalkiak*” jardunaldietan<sup>20</sup> parte hartu zuen. “...eta kitto” herri aldizkarian artikulua sail interesgarria idatzi zuen Eibarko euskararen gainean, aldizkari horrek, omenaldi modura, denak bildurik argitaratu duena 1999ko apirilean “*Eibarrera jatorraren bidetik*” izenburupean. Euskaltzaindiarekiko harremanez, bi txosten aurkitu ditugu, *Euskararen batasunari buruz bata eta Mugagabe taxuzko perpausak zenbatasunezko esaldietan* bestea<sup>21</sup>. Eibarko euskara

<sup>16</sup> Imanol Laspiur, *Euskal-joskera*, in JAKIN 31/32, 1968, 39-57. (Gogoan dut Basarrik “La Voz”en idatzitako artikulua, “*Bejondeizula Laspiur*” izenburuarekin, lan hau goratuz beste joera batzuen kontra jarduteko aukera ematen ziona).

<sup>17</sup> Imanol Laspiur, *Eibarrera jatorraren bidetik-Eranskiñak*, “...eta kitto”, Eibar, 101 (Z.Argia 1970), 102 (Z.Argia-1974).

<sup>18</sup> Imanol Laspiur, *Eibarrera jatorraren bidetik-Eranskiñak*, *Hitzaldi eta mahai-inguruak, euskararen inguruan*, “...eta kitto”, Eibar, 109, 110.

<sup>19</sup> Imanol Laspiur, *Azentu diakritikoa Eibarko euskarari*, in EUSKERA 24, 1979-1, 175-268

<sup>20</sup> Eibarko Udala, *Euskara Euskalkiak-Eibar* 85, Zarautz 1986.

<sup>21</sup> Imanol Laspiur, *Eibarrera jatorraren bidetik-Eranskiñak*, *Euskaltzaindia-Txostenak* “...eta kitto”, 112.

mintegiko partaide, *Eibarreraz idazteko oinarrizko erizpidiak* jartzeko lankide izan genuen. Gaisotu aurretik amaitzear zeuzkan *Eibarko euskeriaren deklinabidia* eta *Eibarko euskeriaren entonaziñua*; Eibarko udalaren Euskara Batzordeak argitaratu ditu oraintsu liburuki batean<sup>22</sup>.

Eibarko ekonomi bizitzaz ere bazituen bere kezka, eta horren adibide dira 1972an *Nora doa Eibar?*<sup>23</sup>, 1973an *Eibarko industria gaur*<sup>24</sup> eta *Eibarko "Maquinas de coser Alfa S.A."* Alfako historiaz<sup>25</sup> idatzitako artikulua.

Idatzita utzi digunaz, haren lan zerrendarik osatuena *Eibarrera jatorraren bidetik* liburuaren eranskinean<sup>26</sup> ematen da, hiru partetan: *I Argitaratu gabekoak*, *II Argitaratutakoak*, eta *III Beste paper batzuk*, non hirugarren atal honetan, eskuizkribu eta paper mekanografiatuen zerrenda dakarren, argitaratu direnentz ez dakigun artikuluez, mahai-inguru eta hitzaldi, txosten eta abarrekin, denak Eibarko *Ego-Ibarra* Batzordearen Fondoan. Aurretik aipatu izan ditudanez gainera, aipa ditzadan haren lehen lan idatziak: 1954an *Mila Euskal Olerki Eder-en* "Lastarri" goitizenez, 1955-59 tartean *Euzko Gogoan*-n "Lastarri" eta "Maitale" goitizenez, eta *Olerti*-n 1959an. *Karmel* aldizkari honetan ere idatzi izan du, horren aztarnarik aurkitu ez badut ere. Kartzelaldi ondorengoa da idatzi izan duen gehiena, artikulua egile gisa aldizkari eta egunkarietan: *Zeruko Argia*, *Eibar*, *Kezka*, *Anaitasuna*, ...eta *Kitto*, *Egin* eta *Euskaldunon Egunkarian*. *Zeruko Argian* eta *Eginen* eman zituen artikulurik gehienak eta jorratu izan zituen gaiak: kronikak, herrietako euskara, kirola, euskal izatea, euskara batua, demografia, eus-

<sup>22</sup> Imanol Laspiur, *Eibarko euskeriaren deklinabidia eta entonaziñua*, Eibarko Udala-Euskara Zerbitzua, Eibar, 1999ko azaroa.

<sup>23</sup> Imanol Laspiur, *Nora doa Eibar?*, KEZKA eta EIBAR aldizkariak, Eibar, 1972

<sup>24</sup> Imanol Laspiur, *Eibarko industria gaur*, EIBAR aldizkaria, Eibar, 1973.

<sup>25</sup> Imanol Laspiur, *Eibarko "Maquinas de coser Alfa S.A."*, *Kooperatibak* ale berezian, in JAKIN sorta 7, 1973, 101-148.

<sup>26</sup> Imanol Laspiur, *Eibarrera jatorraren bidetik*, *Eranskiñak*, "...eta kitto", Eibar, 1999, 91-112.




kararen erabilera, toponimia, Vietnam, biolentzia, politika, irakaskuntza, euskal presoak, maiteak eta miretsiak zituen zenbait personaren hilberriak, kartzela, tortura... Zapalduetikiko elkartasuna eta euskaltasunarekiko leialtasuna izan da bere betiko jarrera, eta gertakizunen aurrean bihozkadaka eta sentimenduak eraginda idazten zuen sarri. Itzulpen lanetan ere jardun izan zuen: *Munduan Zehar*<sup>27</sup> entziklopediaren *Bidaiak eta Esploraketak* deritzon atalean.

Nire lagun honen izaeraz eta nortasunaz zerbait agertzea zilegi bekit. Izaera irmoa, begirada sakonekoa, berbetan tinko eta segurua, zuhurra eta orekatsua izan arren bere iritziak bero-bero defendituko zituen; iritzi tinkodun gizona bazen ere, malgua ere bazen eta gehien erabakiak arazo gabe onartuko zituen arrazoizkoak izanez gero. Eta samurra; samurra haurrekin, adineko jendearekin, maite eta miresten zituen guztiarekin. Bere sentimenduak naturaltasun guztiarekin azaleratzen zituen. Kortesiako erregela formalak betetzen, gu gehienok baino estuagoa. Perfekzionista samarra bai euskara kontuan bai eta bere lanbidean. Gazteekin, laguntzeko eta bultzatzeko prest beti, animoak emateko aukerarik ez zuen galduko. Musikazalea, koruetan kantore, atsegin zuen Santa Ageda kantuan irtetea, dibujatzea eta pintatzea zuen gustoko, kirolari eta natura maitale. Erromantiko, ameslari eta idealista handia zen Imanol. *Aletakua*<sup>28</sup>, eibartarrok diogun moduan. Erraz egokitu zen bai kartzelara, bai eta desterruan egon zen Granadako Zafarraya herritxora ere, non bertako nekazari sufrituekin adiskidetasun eta elkartasunezko harremanak izango zituen. Mundu guztiko zapalduekin zen solidario, eta persona eta herri librez osatutako anaitasunezko mundu globala zen haren utopia handia.

<sup>27</sup> *Munduan Zehar. Haurren Entziklopedia Orokorra*, E.Vascas, 1975, 10 liburuki. *Bidaiak eta Esploraketak* deritzon 8. liburukia itzuli zuen Imanolek eta obra osoaren itzulpenaren orrazketa Dionisio Amundarainena da.

<sup>28</sup> Toribio Etxebarria: *Gizon haundixak aletakuak izaten dira*; in *Lexicon del euskera dialectal de Eibar-123*, Euskera VIII-IX, 1963-64, Bilbao.

Asko zor diogu Imanoli eta Imanol bezala urte zailetan, oinarrarian, herrietan, suspertzaile, bultzatzaile eta kultur bidegintza lanetan jardun izan duten guztiei; zeren eta horien guztien doako lanik eta jardunik gabe, ezina zatekeen euskal munduak azken 30 urteetan izan duen aurrerakuntzarik.



Imanol Laspiur, A. Santi Onaindia eta Bittor Kapanaga, 1956an, Arantzazurako bidean.

Laudorioak eta gorazarreak ondo mereziak jaso izan ditu Imanolek zendu zenekoan<sup>29</sup>, eta nik orain, handik urte betera, ez dut, ez, neurearekin Imanolekin dugun zorra kitatuko. Nahi izan dudana zera izan da: norberaren astia gizartearentzat, Herriarentzat, emateko zikoitz garen sasoi honetan, urte zailetan, bere burua euskarari, ikastolari eta Euskadiri eskaini dionaren eredia zuei agertzea. Lortuko ahal dut!

*Serafin Basauri*

*1999ko Gabon egunean*

---

<sup>29</sup> Ikus: ; Ane Sarasketa, *Imanol Laspiur euskaltzain urgazle eibartarra zendu da*, Egunkaria 1998-12-26, 13; L. A. Aranberri "Amatiño", *Imanol Laspiur*, El Diario Vasco 1998-12-29; "...eta Kitto" 258 zk. 98-12-31, 22 eta 23; "...eta Kitto" 260 zk. 99-I-22, 9,10 eta 11, aldizkariaren beraren, Serafin Basauri, Jesus Mari Gisasola, Mikel Arrillaga, Koldo Zuazo eta Antxon Narbaizaren hitzak; Mikel Atxaga, "*Tintin*" *arraio bori!*, Deia 1999-1-13; Koldo Urkiza, *Imanol Laspiurri agurra*, Egunkaria 99-1-27.